

Euskal AEko industria-prezioak % 0,1 jaitsi dira 2025eko urrian aurreko hilaren aldean


2024ko urriaren aldean, ordea, industria-prezioek % 1,0eko igoera izan dute

Eustatek bildutako datuen arabera, Euskal AEko industria-prezioek % 0,1 egin dute behera 2025eko urrian, aurreko hilaren aldean. Urriko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen duena) % 1,0 igo da.

Azterketa zehatzago batek agerian uzten du, 2025eko urrian, prezioetan jaitsierarik handienak izan dituzten sektoreak, aurreko hilaren aldean, hauek izan direla:

Koke-lantegiak eta petrolio-fintzea (% 1,9 jaitsi dira) eta *Material eta ekipo elektrikoek fabrikazioa* (% 0,9 jaitsi dira). Aitzitik, prezioetan hiletik hilerako igoera handienak izan dituzten sektoreak *Ura* eta *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 2,3 eta % 1,7, hurrenez hurren) izan dira.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Helburu ekonomikoaren arabera ondazunen sailkapenari jarraituz, 2025eko irailaren aldean *Energiaren* prezioak % 0,5 jaitsi dira. Bestalde, *Kontsumo-ondasunek* % 0,3ko igoera izan dute, *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunetan* % 0,4ko eta *Kontsumo iraunkorreko ondasunetan* % 0,1eko igoerak eman direlako. *Ekipamenduko ondasunei* dagokienez, prezioak % 0,3 igo dira eta *Bitarteko ondasunen* kasuan % 0,2 egin dute behera.

Urte artean, 2025eko urria 2024ko urriarekin alderatuta, prezioen igoerarik handienak honako adar hauetan izan dira: *Produktu informatiko, elektroniko eta optikoen fabrikazioa* (% 11,8) eta *Farmazia-produktuen fabrikazioa* (% 10,2). Aitzitik, *Koke-lantegiak eta petrolio-fintzea* adarreko prezioek % 2,9ko urte arteko jaitsiera izan dute, eta *Kautxua, plastikoa eta beste produktu mineral ez metaliko batzuk* adarrekoek % 0,8 egin dute behera.

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Urria 2025

	Indizea	Aldearen %	
		m / m-1	m / m-12
Indize orokorra	112,6	-0,1	1,0
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	138,1	0,9	4,3
Manufaktura-industria	115,7	-0,2	0,9
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	127,9	-0,3	2,7
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	112,5	0,9	1,2
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	125,8	1,3	1,3
Kokeak eta petrolio fintzen	110,8	-1,9	-2,9
Industria kimikoa	126,2	-0,2	-0,4
Botiken fabrikazioa	119,2	-0,0	10,2
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	115,8	-0,2	-0,8
Metalurgia eta produktu metalikoak	111,0	-0,2	1,0
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	124,4	-0,1	11,8
Material eta ekipoen fabrikazioa	121,3	-0,9	7,6
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	114,4	0,9	0,0
Garraiorako materialen fabrikazioa	115,7	-0,0	0,4
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	117,1	0,3	2,8
Energia elektriko, gasa eta lurruna	76,7	1,7	2,4
Ura	133,8	2,3	4,0
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	125,0	0,3	4,8
Kontsumoondasun iraunkorrak	114,3	0,1	1,0
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	127,9	0,4	5,7
Ekipo-ondasunak	116,2	0,3	1,6
Bitarteko ondasunak	114,8	-0,2	0,6
Energia	96,3	-0,5	-0,9

Oinarria 2021=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2025eko Azaroaren 24a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Helburu ekonomikoaren arabera ondasun-talde nagusien prezioen urte arteko aldakuntza gero eta handiagoa izan da *Kontsumo-ondasunetan*. Kasu horretan, % 4,8ko igoera izan da, *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* igoera % 5,7koa izan delako eta *Kontsumo iraunkorreko ondasunena* % 1,0ekoa. 2024ko urriarekin alderatuta, prezioak % 1,6 igo dira *Ekipamenduko ondasunetan*. *Bitarteko ondasunetan* prezioek % 0,6 egin dute gora urte arteko terminoetan, eta, azkenik, *Energian* % 0,9ko urte arteko jaitsiera izan dute.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman dizkie parte hartu duten establezimendu guztiei egin duten esfortzuagatik. Haiei esker, hilabete honetako indizea laginaren % **90,93**ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62